



## LAGUNDU NAHI BADUZU




Adingabe bat artatu nahi baduzu



[familiaharrera@gipuzkoa.eus](mailto:familiaharrera@gipuzkoa.eus)  
edo 943112522




Familia bati lagundu nahi badiozu edo beste moduren batean lagundu nahi baduzu



[errefuxiatuak@euskadi.eus](mailto:errefuxiatuak@euskadi.eus)




Ukrainatik etorritako familia bat bazara



Gipuzkoako Gurutze  
Gorriaren bulego  
probintziala,  
Zorroaga gaina 41.  
Donostia  
945 222 222  
09:00tatik 22:00ra

## DAGOENeko HARRERAN ADINGABE BAT BADUZU


Adingabea, **aita, ama edo legezko tutorearekin** daudenak



Gipuzkoako Gurutze  
Gorriaren bulego  
probintziala,  
Zorroaga gaina 41.  
Donostia  
945 222 222  
09:00tatik 22:00ra

**Inoren kargura** ez dauden adingabeak

Heldu batek lagundutako adingabeak,  
ahaidetasun- edo tutoretza-  
harremana **EZ** dutenak



[familiaharrera@gipuzkoa.eus](mailto:familiaharrera@gipuzkoa.eus)  
o 943112522



# Ukraniatik datozen adingabeentzako laguntza

1. Adingabeak beren familietatik **banantzea saihestea**. Inoren kargura ez dauden adingabeak lekualdatzeak adingabeen trafiko-mafiak agertzea eragiten du.





2. **Ez** ekarri adingaberik Gipuzkoako Foru Aldundira lehenago informatu gabe [familiaharrera@Gipuzkoa.eus](mailto:familiaharrera@Gipuzkoa.eus) o 943112522

3. Adingabeak Ukrainatik Espainiara **lekualdatu** behar badira gurasoen laguntzarik gabe edo haien arretaren legezko ardura duen pertsonaren batekin, lekualdatze horiek **bide ofizialetatik** egin beharko dira.



4. Bereizketa hori jada gertatu bada, lekualdatutako adingabeak **familiekin** ahalik eta lasterren **bateratzea/itzultzea** sustatzea.




5. Ukraniatik irteten diren adingabeek **identifikazio-agiriak** aldean dituztela ziurtatzea

6. Epe **ertain/luzerako neurriak** bilatu behar dira. Epe laburra bakarrik baloratuta hartutako erabaki batek kalte handiagoa eragin diezaioke adingabeari, ez baitakigu zenbat denbora luza daitekeen egoera hori



7. Ukrainatik guraso, tutore edo zuzeneko seniderik gabe iristen den adingabe oro **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** babespean artatu beharko da. Adingabe bat hartu nahi duten espainiarrek horretarako **baloratu** beharko dute.



## Kontuan hartu beharreko alderdiak, harrera familia izan nahi baduzu

Adingabe baten harrera-prozesua ez da hain erraza, lege- eta administrazio-alderdi asko hartu behar dira kontuan:

- Harrera-prozesua Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez gauzatu behar da. Komunitate bakoitzak erakunde publiko bat du programa horiek kudeatzeko
- Kasu bakoitza banaka aztertu behar da, adingabeen egoeraren eta eskaintzen den familiaren gaitasunen arabera
- Borondate ona izatea ez da beti izaten ahal izatea



Hausnartu beharreko alderdiak:

- Epe ertain/luzerako erabakia
- Erabilgarritasuna
- Familia harrerarentzat ekarriko dituzten aldaketak eta egokitzapenak
- Familiarekin harremanetan egoteko beharra
- Hizkuntza
- Trauma
- Artatutako adingabeak komunitate ukrainarrarekin sozializatzeko duen beharra.

